

AMPLIFY! MENTORETZA PROGRAMAN PARTE HARTZEKO DEIALDIA IREKI DA

AMPLIFY! Erasmus+ek babestutako nazioarteko proiektu bat da, honen baitan mentoretza programa bat eskaintzen duena, hainbat disziplinetan, hala nola, musika edo diseinuaren esparruan. Kultura eremu horietan lan egiten duten gazte sortzaileei zuzendua dago programa, profesionalizazioaren prozesuan laguntzeko helburuarekin.

Proiektuak ikaskuntza-ez formaleko metodologia berritzaileak garatu eta sustatu nahi ditu, batez ere oztopo ekonomiko, kultural edo beste motatako diskriminazioei aurre egin nahi dieten gazte sortzaileen kasuan.

Zer da AMPLIFY!ren MENTORETZA PROGRAMA?

AMPLIFY!ren mentoretza programa Europako leku ezberdinetan garatuko den ekimen bat da. Proiektua sei nazioarteko bazkidek osatzen dute (Combustible, Clive Davis Institute, Musika Bulegoa, Atabal, CandiD eta Vectorealism) eta horietatik lauk eskainiko dute mentoretza programa euren eremuko gazte sortzaileei. Frantziako Combustible elkarteak egiten du koordinazio orokorra eta New Yorkeko Clive Davis Institute of Recorded Music-ek aldiz, nazioarteko ikuspegiaren aholkularitza eskaintzen du, mentoretzaren metodologiaren gidaritza eramateaz aparte. Hauek dira mentoretza programa eskainiko duten erakunde edo elkarteak:

- **Musika Bulegoa – musika (Hego Euskal Herria)**
- **Atabal – musika (Ipar Euskal Herria)**
- **CandiD Atelier – arte eta diseinua (Toulouse, Frantzia)**
- **Vectorealism – arte eta diseinua (Milan, Italia)**

Musika Bulegoaren programaren ezaugarriak:

- Iraupena: gutxi gorabehera urte eta erdi (2026ko apirilean hasi eta 2027ko irailean amaituko da)
- Zenbatekoa: bi musika proiektu hautatuko dira, banakakoak edo taldekoak.
- Formatua: aurrez aurrekoa eta telematikoa. Hautatutako proiektuetako ordezkarien bizilekuaren arabera izango da. Musika Bulegoa koordinatzaileekin saioak orokorrean telematikoak izango dira.

Zer eskaintzen da?

- Musikaren sektoreko hainbat esparruetan jakintza eta esperientzia handiko mentore baten tutoretza pertsonalizatua, proiektu bakoitzaren erritmoak errespetatuz. Tutoretza hau hilabeteroko bileren bitartez gauzatuko da. Tutoreak tresnak, baliabideak eta aholkua emango dizkio mentorizatuari bere helburuak lortzeko, beti ere, profesionalizazio egoerara bideratuz.
- Ekoizpen gastuetarako laguntza ekonomikoa izateko aukera.
- AMPLIFY! nazioarteko sarearen parte izatea.
- Norberaren proiektuaren hedapen ekintza bat egiteko aukera eta baliabideak.

Nori zuzendua?

- Hego Euskal Herriko musika proiektuei, bakarkakoak zein taldekoak direnei.
- Tutoretza profesionala eta lankidetzan aritzeko prest dauden musika proiektuei.
- 30 urtetik beherako pertsonekin osatutako musika proiektuei.
- Haien proiektua egoera profesionalera bideratu nahi duten musika proiektuei.

Zer aurkeztu behar da deialdian izena emateko?

- Idatzizko adierazpena (500 hitz gehienez): zergatik hartu nahi duzu parte AMPLIFY! proiektuaren mentoretza programan?
- Sormen lagina: zure edo zuen lana erakusten duen dokumentu edo artxiboa (idatzizkoa, audioa, bideoa, bisuala...).
- Zure edo zuen inguruko bideo adierazpenaren esteka (2 minutu gehienez).
- Currículuma (proiektua bakarkakoa bada, pertsonarena eta taldekoa bada, taldekide guztiena).

Deialdia martxoaren 1ean itxiko da.

[Izena emateko eta deialdiaren xehetasun guztiak irakurtzeko.](#)

Zalantzak argitzeko: contact@amplify-project.xyz